

IRAGARKIA

2016eko uztailaren 21ean Alkateak emandako dekretu baten bitartez Bergarako Udalak 2016. urterako ezarri dituen diru-laguntza programen deialdi irekia arautuko dituzten oinarriak onartu dira eta honen bidez argitaratzen dira:

BERGARAKO UDALAK 2016. URTERAKO EZARRI DITUEN DIRU-LAGUNTZA PROGRAMEN DEIALDI IREKIA

XEDAPEN OROKORRAK

ZIOEN AZALPENA

Begarako Udalak, 2016ko urtealdirako onartutako udal aurrekontuetan, diru-izendapenak egin ditu elkarte eta entitateei hainbat arlotan egiten dituzten jarduerak sustatzeko, betiere udal interesekoak izanda. Udal interesekotzat jotzeko, herri erakundeek lantzen ez dituzten ekimenak izan beharko dira, edo bestela, horiek landutako ekintzen osagarri. Horregatik guztiagatik, bere aurrekontu-baliabideen esparruan, lehia askeko deialdi irekia egiten du Bergarako Udalak, 2016ko urtealdian egitekoak diren proiektuetarako laguntzak eta diru-laguntzak emateko.

Deialdi honek hainbat diru-laguntza jasotzen ditu agiri bakar batean, diru-laguntzak hartuko dituzten elkarte eta entitateei araudi-erreferentzia bakarra emateko eta, aldi berean, espedienteak izapidetzean egin beharreko kudeaketa administratiboak samurtzeko. Honako udal sail hauek beren eskumenen eremuan ematen dituzten laguntzak sartzen dira:

- Gizarte Zerbitzuak:
 - 1. Garapenerako lankidetzeta-programak lantzen dituzten Gobernu Kanpoko Erakundeentzako (GKE) diru-laguntzak
 - 2. Gizarte Zerbitzuen arloan diharduten elkarteentzako diru-laguntzak
- Kirolak
- Kultura
- Ingurumena

Deialdi honetan hauek ezartzen dira:

1. Oinarri orokorrak, Diru-laguntzen azaroaren 17ko 8/2003 Lege Orokorrean ezarritakoaren arabera. Oinarri horietan zehazten dira, hain zuzen, deialdi guztietarako diren xedapen orokorrak, eskabidea egiteko jarraitu beharreko prozedura, onuradunak, eskatzaileei eskatzen zaizkien baldintzak, aurkezteko epeak, laguntzak jasotzeko zenbateko globala,

eman beharreko zenbatekoa, diru-laguntza zertarako den justifikatzea, diru-laguntzak ordaintzea eta abar.

2. Oinarri espezifikoak, sail bakoitzak bere eskumeneko alorretan ezartzen dituenak, non laguntza-programa bakoitzaren berezitasunak zehazten diren; hala nola, diru-laguntza esleitu eta banatzeko irizpideak, aurrerakinak emateko aukera, aurkeztu beharreko agiriak eta abar.

OINARRI OROKORRAK

I. XEDEA

1. artikulua.

Oinarri hauek 2016. urterako diru-laguntzak eta laguntzak emateko prozedura orokorra arautzen dute, lehia askearen bidez.

2. artikulua.

Deialdi hau 2016ko uztailaren 21eko dekretuaren bidez onartu da

3. artikulua.

Diru-laguntza hauek emateko eta udalaren eta onuradunen arteko harreman juridikoa zehazteko, programa arautzen duten oinarriak eta diru-laguntza ematean indarrean dauden gainerako arauak bete beharko dira.

Oinarri espezifikoek bestelako erregulazio bat berariaz ezartzen ez badute behintzat, oinarri orokor hauetan ezarritako xedapenak eta baldintzak aplikatuko zaizkie udalak onartutako laguntza edo diru-laguntza programa guztiei.

Oinarriotan xedatuta ez dagoen guztian, honako hauek aplikatuko dira: Bergarako Udalaren udal aurrekontuaren arauak, Diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorra, eta gai honen inguruan indarrean dauden gainerako arauak.

II. ONURADUNAK

4. artikulua.

Arau espezifikoetan ez badago zehaztuta zeintzuk izan daitezkeen onuradunak, laguntza jaso ahal izango dute egoitza eta jardute eremua Bergaran daukaten elkarte nahiz entitateek.

Elkartek edo entitateek Autonomia Erkidegoko Elkarten Erregistroan edo bestelako erregistro publikoetan erregistratuta egon beharko dute, eta identifikazio fiskaleko kodea eduki beharko dute.

III. ESKABIDEAK ETA AURKEZTEKO EPEA

5. artikulua.

Aurkezten diren laguntza-eskabideak udalak prestatutako eskabide-ereduaren arabera idatziko dira. Eskabide-ereduak, orokorrak nahiz espezifikoak –dagokion kasutan–, oinarri-arau hauetan datoz eranskin gisara, eta interesa duten guztiek eskuragarri izango dituzte bai udal bulegoetan bai udalaren web orrian (www.bergara.eus).

Elkarte edo entitate eskatzailearen ordezkariak edo arduradunak aurreko paragrafoan aipatutako eskabide-eredua bete eta sinatu beharko du.

6. artikulua.

Eskaerak astelehenetik ostiralera, 9:00etatik 13:00etara, Udaletxeko Erregistro Orokorrean aurkeztu beharko dira. Eskaerak aurkezteko epea 2016ko irailaren 30ean 13:00etan bukatuko da.

IV. EKARRI BEHARREKO AGIRIAK

7. artikulua.

Eskabidearekin batera eskatzaileak beheko agiri hauek aurkeztuko ditu nahitaez; horrek ez du esan nahi, ordea, laguntza-programa bakoitzaren oinarri-arau espezifikoetan eskatutako dokumentazioa eta eskatzaileak interesgarritzat jo ditzakeen beste agiri batzuk ere aurkeztu beharko ez direnik:

- Eskaera-orria sinatuta (eredua V. eranskinean dago jasota)
- Jarduera-programa
- Aurrekontua
- Ogasunekiko betebeharretan eta Gizarte Segurantzakoetan egunean egotearen ziurtagiriak edo zinpeko aitortpena
- Departamentu bakoitzak bere arautegi espezifikoan jasotako agiriak
- Lehendabiziko aldiz diru-laguntza eskatzen duten entitate edo elkarteek, Eusko Jaurlaritzako elkarte eta entitateen erregistroko kopia zigilatua, elkartearen edo entitatearen sortze-aktaren kopia, estatutuak eta egungo zuzendaritza-batzordearen osaketa

Eskaera aurkezteak esan nahi du eskatzaileak oinarri hauetan ezarritako baldintzak bere horretan onartzen dituela.

Ez da beste dokumentazio-motarik onartuko.

Eskatutako dokumenturen bat jadanik Bergarako Udalaren esku balego, diru-laguntzaren eskatzaileak ez du dokumentu hori aurkeztu beharrik izango, betiere eskaeran adierazten bada zein egunetan aurkeztu zen eta zein organori edo zein bulegotan izan zen, eta ez badira bost urte baino gehiago igaro zegoen prozedura bukatu zenetik.

Hala ere, dokumentua lortzeko ezintasun materiala balego, organo eskudunak dokumentua erabaki-proposamenaren formulazioa baino lehen aurkezteko eska dezake.

8. artikulua.

Eskabideak edo harekin batera doan nahitaezko dokumentazioak akatsen bat duenean edo osatu barik dagoenean, 10 eguneko epea izango dute interesdunek antzemandako akatsak zuzentzeko, udalak egindako errekerimendua jakinarazi eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Emandako epea akatsak zuzendu barik igarotzen bada, diru-laguntza eskabidea ez da onartuko, eta beste izapiderik gabe artxibatu egingo da.

9. artikulua.

Eskabide-inprimakiak behar bezala beteta eta dagokien dokumentazioa erantsita Udaletxeko Erregistro Orokorrean aurkeztuko dira.

V. ERABAKIA

10. artikulua.

Laguntza-programaren arabera, dagokion departamentuak edo udal arloak izango du aurkeztutako eskabideak tramitatzeko ardura; beraz, sail horien esku egongo da, beren eskumenen eremuan, proiektuak aztertu eta ebaluatzeko erantzukizuna.

11. artikulua.

Proiektuek administrazio-unitate edo udal-arlo bati baino gehiagori eraginez gero, ikuspegi orokor batetik aztertuko dira, tartean dauden sailek batera sinatutako agiri edo txosten baten bidez.

12. artikulua.

Zerbitzu teknikoek txostena egin ondoren, gai horretan eskumena duen batzordeburuak, irizpena egin aurretik, eta hala badagokio, akordio-proposamena egingo dio organo eskudunari, onar dezan.

Alkatea izango da laguntzak edo diru-laguntzak emateko organo eskuduna.

13. artikulua.

Laguntza edo diru-laguntza emateko edo ez emateko erabakia arrazoitu egin beharko da, eta, edozelan ere, erabakia deialdiaren oinarri-arauetan jasotako irizpide objektiboen arabera hartu dela egiaztatu beharko da.

Eskatzaileari jakinaraziko zaion erabakian, berariaz agertuko dira xedea, diru-laguntza jasoko duten eskatzaileen zerrenda, zenbat emango zaien, nola ordainduko zaien, nola justifikatu behar duten eta baita oinarri-arau orokor hauetan, dagozkion oinarri espezifikoetan edo diru-laguntza ematen den unean indarrean dauden arauetan eskatzen diren gainerako baldintzak eta betebeharrak ere. Halaber, berariaz adieraziko da onartu ez diren edo ukatu diren eskabideen zerrenda.

Era berean, horren aurka jarri daitezkeen errekursoak azalduko dira udal erabakian, bai eta zein organo judizialean aurkeztu behar diren eta horiek jartzeko epea ere; horrek ez du esan nahi, ordea, interesdunek komenigarritzat jotzen duten beste edozein errekurso ere jarri ahal izango ez dutenik.

Orobat, diru-laguntzak emateko akordioetan 10 egun balioduneko epea emango zaie onuradunei, onartu dutela adierazi dezaten. Horretarako emandako epean besterik adierazten ez badute, ulertuko da inplizituki onartu dutela.

14. artikulua.

Erabakiak hartu eta jakinarazteko gehieneko epea 2 hilekoa izango da, deialdi honetan eskabideak aurkezteko adierazten den epea bukatzen denetik zenbatzen hasita. Artikulu honetan xedatutako epeari dagokionez, abuztua hilabete baliogabetzat hartuko da. Epe hori berariazko erabakirik eman gabe igarotzen bada, eskabidea ez dela onartu ulertuko da. Emandako diru-laguntza guztien publizitatea egingo du udalak, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 18. artikuluan xedatzen denez.

VI. ONURADUNEN OBLIGAZIOAK

15. artikulua.

Diru-laguntza emanez gero, oinarri-arau espezifikoetan jasotakoez gain, hauek ere entitate onuradunaren betebeharrak izango dira:

- a) Helburua betetzea, proiektua betearaztea, ekintza gauzatzea edo diru-laguntza ematea oinarritzen duen jokabidea hartzea.
- b) Diru-laguntza eman duen organoari honako hauek justifikatzea: betebeharrak eta baldintzak bete izana, ekintza gauzatu izana eta diru-laguntza jaso edo erabiltzearen helburua bete izana. Emandako diru-laguntzaren kopuru osoa faktura edo ordain-agiri bidez justifikatu beharko da.
- c) Diru-laguntza ematen duen organoak eta eskuduntza izendaturik duten estatuko nahiz erkidegoko kontrol-organoei egin ditzaketan egiaztatze-jardunak eta finantza-kontrolak onartzea; bai eta aurreko jardunak burutzeko errekeritutako informazioa ematea ere.
- d) Diru-laguntza eman duen organoari jakinaraztea diruz lagundutako ekintzak finantzatzen dituzten beste diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo bitarteko batzuk lortu izana. Jakinarazpena, horien berri izan eta berehala egin beharko da, eta, edozelan ere, fondoei emandako erabilpena justifikatu baino lehen.
- e) Arau espezifikoetan ez badago beste zeozer zehaztuta, Ogasunetikiko betebeharraren eta Gizarte Segurantzakoetan egunean egotearen ziurtagiriak. Halaber, Bergarako Udalarekin egunean egotearen ziurtagiria.
- f) Jasotako fondoak zertan erabili diren egiaztatze dokumentuak gordetzea, gutxienez bost urtez, bai eta dokumentu elektronikoak ere, egiaztatze eta kontrol jardunak burutu daitezzen.
- g) Neurriak hartzea diruz lagundutako ekintzen berri emateko, eta horietan adierazi beharko da Bergarako Udalak diruz lagundu duela. Gainera, baldintza hauek bete beharko dituzte:

— Euskararen erabileraren inguruan: Diru-laguntza hauek jasotzeko ezinbestekoa izango da, gutxienez, euskara erabiltzea ekitaldi eta idatzizko komunikazio publikoetan: iragarki, ohar eta abar.

Ahozko komunikazioetan, bi hizkuntzak erabiliz gero, euskarari emango zaio lehentasuna, euskarazko aurkezpena erdarazkoaren aurretik eginez.

Era berean, idatzizko komunikazio elebidunetan ere, euskarari emango zaio lehentasuna, bai kokalekuaren aldetik (euskarazkoa erdarazkoaren gainean), bai neurriaren aldetik. Testuak, hizkuntza aldetik, zuzen idatziak daudela egiaztatzeko, Euskara Zerbitzura eraman ahalko dira.

Antolatzen dituzten jarduerak (ikastaro, hitzaldi, entrenamendu eta era guztietako ekitaldiak...) euskaraz izatea bultzatuko da, bereziki gazteei bideratuak direnean, eskolako irakaskuntzaren osagarri izan daitezen.

— Gizon eta emakumeen berdintasunari dagokionez, udalak markatutako irizpideak jarraitu beharko ditu elkarteak. Jarduera, proiektu edo programarekin lotutako iragarki eta komunikazioetan ez da erabiliko ez hizkera ez irudi sexistarik, estereotipo eta rolak alde batera utziz. Era berean, ezingo da diskriminatu sexu-arrazoiengatik. Eta emakumeen presentzia eta parte hartzea eremu guztietan ahalbidetuko da (zuzendaritzan, bazkideen artean, erabiltzaileen artean eta abarretan).

Edozein sari-mota emateko sortzen diren hautaketa-epaimahaietan trebakuntza, gaitasun eta prestakuntza egokia duten emakumeen eta gizonen ordezkariak orekatua bermatuko da. Ordezkaritza orekatua izango da lau kide baino gehiago dituzten epaimahaietan sexu bakoitzak gutxienez % 40ko ordezkariak izatea.

— Bergarako Udalak diruz lagundu duela adierazi beharko da.

h) Jasotako fondoak itzultzea oinarri hauetan aurreikusitako kasuetan edota indarrean dagoen gainontzeko legediak jasotzen dituen kasuetan.

i) Diruz lagundutako jarduera garatzeko behar beste baimen lortzea, eta baimenon xedapenak betetzea.

j) Jardueraren garapenari buruzko informazioa ematea, udalaren aldetik jarraipena egin edo laguntzeko.

k) Diru-laguntza emateko kontuan hartu den edozein gorabehera aldatuz gero, diru-laguntza eman duen organoari jakinaraztea.

VII. ESKABIDEAK BALORATZEKO IRIZPIDEAK

16. artikulua.

Laguntza-programa bakoitzaren oinarri-arau espezifikoetan jasotzen diren irizpideak izango dira, eta oinarri-arau hauetan eranskin moduan agertzen dira.

Hala ere, aintzat hartuko dira emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzen duten proiektuak, neurriak, ekimenak, jarduerak etab. kontuan hartzen dituzten proiektuak.

VIII. DIRUZ LAGUNTZEKO GASTU-KONTZEPTUAK

17. artikulua.

1. Diruz laguntzeko gastutzat joko dira diruz lagundutako ekintzaren edo proiektuaren izaerari erantzuteaz gain, diru-laguntzak arautzeko oinarriek ezarritako epean egin direnak. Diru-laguntzak emateko deialdia arautzeko arau espezifikoek besterik xedatzen ez badute, ulertuko da gastuak egiteko epea (faktura sortzea eta fakturaren eguna), oro har, urte naturalarekin bukatuko dela, hau da, abenduaren 31n; edo, noizean behingo ekintzen eta ekintza berezien kasuan, dagokion udal akordioan zehazten den justifikazio-epea bukatu baino lehen.

Halaber, gastu bat diruz laguntzeko, Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 29. artikuluan xedatutakoa bete behar da, bai azpikontratatzeko eskatutako baldintzak bai legezko testu beraren 31. artikuluan ezarritakoa.

2. Honako gastu hauek ez dira diruz lagunduko:

— Fakturatzat edo legezko baliodun agiritzat hartu ezin diren gastuen agiriak eta bestelako dokumentuak.

— Bazkari, afari edo ostalaritzako bestelako kostuak, diruz lagundutako ekintzan parte hartu duten pertsonak sortutakoak izan ezik; halakoetan, egindako gastuaren eta lortu nahi den helburuaren arteko proportzionaltasuna gorde beharko da. Dena den, eta salbuespen gisa, udalak, dagokion akordioaren bidez, gastu-kontzeptu hori egiteko berariazko baimena eman ahal izango du.

IX. EMAN BEHARREKO DIRU-LAGUNTZEN GEHIENEO ZENBATEKOA ETA DIRU-KOPURU HORREN IZAERA

18. artikulua.

Udalak 2016ko ekitaldirako onartu dituen aurrekontu-kopuruaren arabera eta batzorde informatzaileek programa desberdinetarako esleitutakoaren arabera, deialdi honetan jasotako laguntzetarako gehieneko diru-kopurua 206.100 eurokoa da (gerora gehitu edo handitu egin daiteke kopuru hori).

Deialdi honen oinarri-arauetan zehazten da zer diru-kopuru esleitu zaion programa bakoitzari, bai eta handitu daitekeen edo ez.

Edozelan ere, oro har, eta oinarri-arau espezifikoetan kontrakorik xedatu ezean, aurrekontu-kopuru horrek muga-izaera izango du eta ezin izango da handitu ekitaldian bertan.

X. ALDI BEREAN BESTE LAGUNTZA BATZUK JASOTZEKO AUKERA ETA FINANTZAKETA-MUGAK

19. artikulua.

Oro har, eta laguntza-programa bakoitzaren oinarri-arauek kontrakorik xedatu ezean, onartu egiten da udal diru-laguntza eta beste finantza-bide batzuk aldi berean eta batera eskuratzeko aukera. Finantza-bide horiek izan daitezke bai beste administrazio batzuetatik, partikularretatik edo abarretik jasotako diru-laguntzak, bai garatu nahi den proiektu edo jarduera finantzatzeko ezarritako ekarpenak edo kuotak.

20. artikulua.

Diru-laguntza honetaz gainera beste finantza-bide batzuk lortuz gero, eta oinarri-arau espezifikoek bestelakorik ezarri ezean, finantzaketa-muga egindako gastuaren % 100a izango da, hau da, udalaren diru-laguntzarekin ezin izango da inondik ere gain-finantzaketarik egon.

Horri dagokionez, eta diru-laguntzak emateko udal akordioetan berariaz bestelako doitze edo erregularizazio sistematik adierazten ez bada, udalak, diru-laguntzaren bukaerako ordainketa edo likidazioa egiterakoan, gain-finantzaketarik gerta ez dadin, zuzendu egingo du ordaindu beharreko kopurua, benetan izandako gastuen eta diru-sarreraren arabera, eta, hala badagokio, gerta daiteke ordaindutako aurrerakinaren zati bat edo aurrerakin osoa itzuli behar izatea onuradunak, edo berari itzuli behar izatea.

XI. DIRU-LAGUNTZA ORDAINTZEKO MODUA ETA EPEAK. AURRERAKINAK IZATEKO AUKERA

21. artikulua.

Diru-laguntza zertarako eman zen eta helburu hori bete izana justifikatu eta gero ordainduko du udalak diru-laguntza. Horretarako, aurrekontuan jasotako eta organo eskudunek onartutako kopuruak eta portzentajeak hartuko ditu erreferentziatzat. Diru-laguntza entitate titular eskatzaileari ordainduko zaio, eskabide-ereduan hark emandako datuen arabera.

22. artikulua.

Diru-laguntza ordaintzeko, kontuan hartuko dira diruz lagundutako jardueraren edo programaren ezaugarriak eta finantza-beharrak.

Oro har, konturako aurrerakinez ordaindu ahal izango da, eta oinarri-arau espezifikoetan beste kopururik adierazten ez bada, ordainketak honela egingo dira:

— Onartutako kopuruaren % 60, justifikatu beharreko aurrerakin gisara, onuradunak diru-laguntza onartutakoan eta gehienez ere hilabeteko epean, akordioa hartzen den egunetik zenbatzen hasita; diru-laguntza 3.000 eurotik gorakoa bada, hitzarmena sinatzen denetik hilabete bateko epean.

— Gainerako % 40, organo eskudunak diru-laguntzaren likidazioa onartutakoan, hau da, diruz lagundutako programa edo jardueraren dokumentazio eta justifikazio osoa eta zuzena entregatu eta gero. Diru-laguntza jaso duten talde edo elkarteek Bergarako Udalak onartutako diru-laguntza osoa faktura edo ordainagiri bidez justifikatu beharko dute.

Aurkeztutako likidazioa hasierako gastu-aurrekontua baino txikiagoa bada, oinarri-arau espezifikoek beste arauketarik xedatu ezean, diru-laguntza gutxitu egingo da koefiziente zuzentzaile bat aplikatuz. Koefiziente hori benetan erabilitako kopuruaren portzentajea izango da, hasieran eskatu eta onartutako kopuruarekiko.

XII. DIRU-LAGUNTZA ZERTARAKO DEN JUSTIFIKATZEKO EPEAK ETA MODUAK

23. artikulua.

1. Diru-laguntzen onuradunek nahitaez justifikatu beharko dute jasotako dirua diru-laguntza ematearen oinarrian zegoen helbururako erabili dutela.

2. Entitateak jarduera globalaren nahiz diruz lagundutako ekintzen memoria aurkeztu beharko du.
3. Jarduera guztien zerrenda aurkeztu behako da; bakoitza zein hizkuntzatan burutu den, parte-hartze kopurua...
4. Programatutako jardueren dokumentazio grafikoa (kartelak, esku-programak, liburuxkak, banatutako idatzizko materiala, prentsa-oharrak, etab.) aurkeztu beharko da.
5. Emaizta ekonomikoen memoria eta balantzea, taldeko ordezkariak sinatuta (talde edo/eta elkarte guztiek aurkeztu behar dituzte). Diru-laguntza jaso duten talde edo elkarteak Bergarako Udalak onartutako diru-laguntza osoa justifikatu beharko du.
- Izandako gastuen faktura originalak edo horien kopia. Ez dira gastu baliagarritzat hartuko talde zein elkarteetako bazkide edo partaideek egindako otorduetako gastuak. Kopia aurkezten badira, udalak eskubidea izango du originalak erakusteko eskatzeko.

24. artikulua.

Aurreko artikuluan aipatutako guztia bete beharko da 2017ko urtarrilaren 15a baino lehen. Salbuespen gisa, Gobernu Kanpoko Erakundeek 2017. urteko abenduaren 31ra arteko epea izango dute.

XIII. OBLIGAZIOAK EZ BETETZEA. ITZULKETA-KASUAK ETA PROZEDURA

25. artikulua.

1. Diru-laguntzen 38/2003 Legearen 36. artikuluan xedatutakoez gain, diru-laguntza emateko erabakiaren deuseztasun nahiz deuseztagarritasun kasuetan, bidezkoa izango da jasotako dirua itzularaztea eta berandutza-interesa eskatzea (diru-laguntza edo laguntza ordaindu den unetik aurrerakoa), ondorengo egoeraren bat gertatuz gero:
 - a. Jasotako fondoak zertarako erabili diren justifikatzeko obligazioa ez betetzea, edo behar beste ez justifikatzea, ezarritako eran eta epeetan.
 - b. Diru-laguntza, horretarako eskatutako baldintzak faltsutuz edo diru-laguntza jasotzea galaraziko zuketen baldintzak ezkutatzuz eskuratu izana.
 - c. Diru-laguntza ematerakoan onuradunei ezarritako baldintzak ez betetzea.
 - d. Diru-laguntza emateko oinarri den xedea ez betetzea, osoki edo zati batean.
Horri dagokionez, eta udalak berariaz besterik erabaki ezean, diru-laguntza ematerakoan onartu ziren jarduera edo programen % 50 baino gutxiago gauzatu izana bete gabeko jarduera edo programatzat joko da.
 - e. Organo eskudunen kontrol-jarduerei uko egitea edo oztopoak jartzea.
 - f. Laguntza edo diru-laguntza bakoitzaren oinarri espezifikoetan xedatutako gainerako kasuetan.
2. Diru-itzulketak udalak zehaztutako epeetan egin ezean, itzuli beharreko kopuruak premiamendu bidez ordainarazi daitezke.

26. artikulua.

1. Diru-laguntza eman zuen organoak berak izango du eskumena jaso den zenbateko osoaren edo zati baten itzulketa exijitzeko akordioa hartzeko.

2. Diru-laguntza itzultzeko prozedura ofizios hasiko da, laguntza edo diru-laguntza ematen duen organoak hala erabakita, hura izapidetzeko ardura duen administrazio-atalak txostena egin eta gero, edo bestela banakoren batek eskatuta edo salatuta.
3. Prozedura izapidetzerakoan bermatu egin beharko da, beti ere, interesdunari entzuteko eskubidea.
4. Emandako diru-laguntza osoa edo zati bat ez dela behar bezala erabili egiaztatuz gero, organo eskudunak ebazpen arrazoitua emango du, eta bertan argi adieraziko du zergatik itzuli behar den dirua, zenbat itzuli behar den, nola eta noizko, eta onuradunari ohartaraziko zaio dirua agindutako epean itzuli ezean premiamenduzko bideari ekingo zaiola.
5. Itzultzeko prozedurari arau-hauste administratibo baten ondorioz ekin bazaio, horren berri emango zaio organo eskudunari, dagokion zigor-prozedurari hasiera eman diezaion.

27. artikulua.

1. Itzultzeko prozedura, diru-laguntzaren eskatzaile edo onuradun gisa agertzen diren pertsona fisiko edo juridikoen aurka zuzenduko da, edo pertsona fisiko edo juridikoz osatuta dauden baina nortasun juridikorik ez duten taldeetako kideen aurka.
2. Diru-laguntza gehi dagozkion berandutza-interesak itzultzeko erantzukizun solidarioa edo subsidiarioa erabakitzeko, Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 40. artikuluan xedatutakoari jarraituko zaio.

XIV. BERMEAK

28. artikulua.

Oinarri-arau espezifikoek edo diru-laguntza emateko akordio zehatzek besterik xedatu ezean, ez da beharrezkotzat jotzen emandako laguntzengatik udalaren aldeko bermerik eskatzea

XV. OINARRI-ARAUEN INTERPRETAZIOA ETA ERREKURTSOAK

29. artikulua.

Oinarri-arau hauek interpretatzerakoan sor daitezkeen zalantzak Alkateak erabakiko ditu, bera baita deialdi hau onartzeko eskumena duen organoa, dena delako Batzorde Informatzaileak, hala badagokio, aldez aurretik programaren arabera txostena egin eta gero.

30. artikulua.

Oinarri-arau hauek onartzeko akordioaren aurka, zeinak administrazio bidea amaitzen duen, berraztertzeko errekurtsoa jarri ahal izango da nahi izanez gero, administrazioarekiko auzi-errekurtsoren aurretik eta hilabeteko epean; edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da zuzenean Donostiako Administrazioarekiko Auzi Epaitegian, bi hileko epean. Aipatutako bi epeak oinarri-arau hauek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik hasita zenbatuko dira.

Horrek guztiak ez du esan nahi, ordea, bidezkotzat jotzen den beste edozein egintza edo errekurtsu jarri ezingo denik.

ERANSKINAK

Eranskin hauetan, diru-laguntzak emateko eskumena duten sailei dagozkien oinarri-arau espezifikoak jasotzen dira.

1. eranskina. Gizarte Zerbitzuen Saila

1.1. Garapenerako lankidetzak-programak lantzen dituzten Gobernu Kanpoko Erakundeei (GKE) diru-laguntzak emateko programa.

1.2. Gizarte-ekintzaren arloan diharduten elkarteei diru-laguntzak emateko programa.

2. eranskina. Kirol Zerbitzua

2.1. Bergarako kirol entitateei ohiko eta ezohiko jarduerak finantzatzeko laguntza edo diru-laguntza programa

3. eranskina. Kultura Saila.

3.1. Kultura-entitateek egiten dituzten urteko jarduerak finantzatzeko laguntza programa.

4. eranskina. Ingurumen Saila.

4.1. Ingurumen-entitateek egiten dituzten urteko jarduerak finantzatzeko laguntza programa.

1. ERANSKINA: GIZARTE ZERBITZUEN SAILA

1.1. GARAPENERAKO LANKIDETZA-PROGRAMAK LANTZEN DITUZTEN GOBERNUZ KANPOKO ERAKUNDEEI (GKE) DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO ARAU ESPEZIFIKOAK

1. Xedea eta onuradunak

Oinarri hauen xedea da 2016an Gobernuz Kanpoko Erakundeei jarraian aipatzen diren programak garatzeko diru-laguntzak emateko deialdia arautzea:

- Garapen-bidean dauden herrialdeetako bizilagunen baldintza sozial, ekonomiko eta kulturalak hobetzeko helburua duten programak.
- Goian aipatutako herrialdeetako errealitatearekiko eta egoera hori sortzen duten arrazoiekiko Bergarako herritarren interesa sortzera zuzendutako ekintzak egitea.

Legez eratuta dauden eta irabazi asmorik gabekoak diren Gobernuz Kanpoko Erakundeek eska dezakete diru-laguntza. Beren ekintzek deialdi honen xedearekin bat egin behar dute eta Euskal Autonomi Erkidegoan edo Nafarroan erroldatuak egon behar dira; eta egoitza soziala, ordezkaritza bat edo administrazio-egitura iraunkor bat Bergaran edo Debagoiengan izan beharko dute.

Deialdi honetatik kanpo geratuko dira Estatu, Administrazio Autonomo, Foru Aldundi eta Aurrezki Entitatearen baten menpeko erakundeak.

Parte hartzen duen GKE bakoitzak proiektu bakar bat aurkez dezake arlo bakoitzerako (sentsibilizaziorako bat, eta lankidetzarako beste bat).

2. Izapidetzeaz arduratzen den administrazio-unitatea.

Gizarte Zerbitzuetako administrazio-unitateak izapidetuko ditu eskabideak.

3. Aurkeztu behar den dokumentazioa.

Aurkeztuko diren proiektuen memoriak, beti ere, alderdi hauek jaso beharko ditu:

Alde batetik, eskaera egiten duen Gobernuz Kanpoko Erakundearen (GKEaren) eta, balego, beste aldeko erakundearen datuak. Eta bestetik, proiektuaren laburpena.

Kasu bietan, oinarri-arau espezifiko hauen gehigarrian jasotzen den ereduari jarraituz. Eredua ez jarraitzeak eskaera baztertzea ekarri dezake.

4. Eskabideak baloratzeko irizpideak.

Diru-laguntzak banatzeko orduan, aurkeztutako ekintzak baloratzeko ondorengo irizpideak hartuko dira kontuan:

A.- Udalerrian bertan egingo diren sentsibilizazio-ekintzetarako:

- a.- Proposatutako ekintzek bideragarritasuna bermaturik izatea. Horretarako, helburuak, zehaztutako aurrekontua, eta ekintzak antolatzen erabilitako bitarteko eta

baliabide ekonomikoak eta pertsonalak baloratuko dira; eta gehienez ere 5,50 puntu lortu ahal izango dira.

b.- Ekintzak komunitate osoa inplikaturiko duten programen barruan egitea; gehienez ere 4,50 puntu lortu ahal izango dira.

c.- Genero-ikuspegia txertatzea: Garatzen den egitarauak emakume eta gizonen berdintasuna helburu izatea eta berdintasuna sustatzeko neurriak aurreikustea (emakumeen parte-hartzea sustatzeko, sexuaren araberako estereotipoak gainditzeko, bateragarritasuna eta erantzunkidetasuna errazteko, etab.): gehienez 1 puntu lortu ahal izango dira.

Hala ere, udalak ekintzak bideragarriak ez direla joko balu, ez litzateke gainontzeko alderdiak baloratzen hasiko.

Banaketatik kanpo geldituko dira, halaber, gutxienez 5 puntu lortzen ez duten eskaerak.

B.- Garapen-bidean dauden herrialdeetan burutuko diren *lankidetzak-ekintzetarako*, honako irizpideak erabiliko dira:

a.- Proposatutako ekintzek bideragarritasuna bermaturik izatea gehienez ere 5,5 punturekin baloratuko da, eta honakoak hartuko dira kontuan:

- a.1 - Kontuan hartuko dira lortu nahi diren helburuak, biztanlego hartzailea, onuradunen kopurua, eta proiektua egin behar den lekuan erakundeak dituen bitarteko tekniko, pertsonal eta materialak, bai eta giza baliabideen organigrama eta proiektuaren egutegia ere.
- a.2 - Halaber begiraturiko zaie proiektua aurrera eramateko aurkeztutako aurrekontuari, erakundeak berak jarriko duen finantziarioari, eta proiektua burutu ahal izateko gutxienezko aurrekontuari.
- a.3 - Kontuan izango da ea proiektuak beste finantzaketa-bide batzuk dituen edo aurreikusten diren —publiko nahiz pribatuak—. (Zinpeko aitorpenaren bidez).

b.- Proiektuak ondorengo helburu bat edo gehiago betetzea ekarriko balu, baloratu egingo da gehienez ere 4,50 punturekin:

- b.1. Komunitateak berak egindako eskariak izatea.
- b.2. Komunitateko kideen partaidetza aktiboa bultzatzea.
- b.3. Komunitate onuradunaren kideak prestatzea.
- b.4. Tokiko aberastasun naturala eta balore ekologikoak errespetatu eta bultzatzea.
- b.5. Eragindako komunitatearen kultura, identitatea eta balore etnikoak sustatzea eta babestea.
- b.6. Proiektu iraunkorra izatea, hau da, diru-laguntza agortutakoan proiektuaren helburuak finkatuta gelditzea, kanpoko laguntzarik gabe.
- b.7. Gizarte-egoera ahulena daukaten sektoreengan izatea eragina.
- b.8. Emakumeek bultzatutako edo/eta emakumearen egoera hobetzeko proiektuak izatea.

c.- Genero-ikuspegia txertatzea: Garatzen den egitarauak emakume eta gizonen berdintasuna helburu izatea eta berdintasuna sustatzeko neurriak aurreikustea (emakumeen parte-hartzea sustatzeko, sexuaren arabeko estereotipoak gainditzeko, bateragarritasuna eta erantzunkidetasuna errazteko, etab.) gehienez ere 1 punturekin baloratuko da.

Banaketatik kanpo geldituko dira, halaber, gutxienez 5 puntu lortzen ez duten eskaerak.

Sentsibilizazio zein lankidetzaren proiektuetan, aipatutako puntuak kontuan edukitzea baloratuko da.

Deialdian parte hartzeko baldintzak betetzen dituen erakunde eskatzaile bakoitzarekin elkarrizketa bat egitea erabaki dezake udalak, aurkeztutako proiektua defenda dezaten.

Diru-laguntzak banatzeko orduan, kontuan hartuko dira onartutako aurrekontua, proiektu bakoitzak lortutako puntuazioa eta GKE horrek udalari eskatutako diru-laguntza.

Puntuaren balioa honela kalkulatu da:

Udalak aurrekontuetan onartu duen diru-kopurua hartu eta zatitu diru-laguntza eskatzen duten elkarte guztien artean lortutako guztizko puntuazioarekin (goiko baremoaren gehienezko puntuazio totalarekin).

Gainera, diruz lagunduko den jardueraren proiektua garatzeko, udalak oinarri hauen arabera egokitutako kopurua bakarrik ordainduko du.

Aurreikusitako aurrekontutik dirua soberan geratuko balitz, talde guztien artean banatuko litzateke, puntuaketaren arabera.

5. Aurrekontua.

Programa honen xede diren diru-laguntzetara bideratutako diru-kopurua 54.700 eurokoa da, eta finantzatuko da Gizarte Zerbitzuak GKE eta Elkartei diru-laguntzak emateko duen partidatik (1.0500.481.230.20.01).

Aipatutako kopurua gehitu ahal izango da, Udal Aurrekontuaren exekuzio-oinarriek aurreikusten dutenaren arabera.

Kopuru hori ondoren adierazten den eran banatuko da:

- % 5 herrian bertan egingo diren sentsibilizazio-arloko ekintzetara bideratuko da. Sentsibilizazio-arloko ekintzetarako diru-laguntzarik emango ez balitz, diru-kopuru hau garapen-bidean dauden herrialdeetako bizilagunen baldintza sozio-ekonomikoak garatu eta hobetzera zuzendutako ekintzetara bideratuko da.
- Gainerako % 95 garapen-bidean dauden herrialdeetako bizilagunen baldintza sozio-ekonomikoak garatu eta hobetzera zuzendutako ekintzetara bideratuko da. Dirurik banatu gabe geratuko balitz eta sentsibilizazio arloan premia egonez gero, sentsibilizazio-arloko ekintzetara bideratu ahalko da dirua.

Bestalde, diru-laguntza ezingo da izan diruz lagunduko den proiekturako zehaztutako aurrekontuaren % 90a baino gehiago.

Diru-laguntza hauetan banatu ez den diru-kopurua urtean zehar suertatutako larrialdi-kasuetan banatzeko dagoen diru-partidari gehituko zaio.

6. Onuradunen obligazioak

Oinarri orokorretan jasotzen denaz gain, udalarekin hitzarmena sinatu beharko da.

Emandako diru-laguntzaren jakinarazpena jaso eta hilabeteko epean sinatu beharko da hitzarmena.

Hilabeteko epe hori igarota, diru-laguntzaren onuradunari lepora dakiokkeen arrazoirengatik hitzarmena sinatuko ez balitz, erakundeak diru-laguntzari uko egin diola ulertuko da.

Hitzarmen horretan alde bien eskubideak eta betebeharrak egongo dira jasota, bai eta diru-laguntza ordaintzeko era, jarduera nola burutuko den, egindako jardueri buruzko txostenak eta memoriak aurkeztean bete beharrekoak, eta gutxi gorabehera jarduerak noiz hasi eta noiz bukatuko diren.

7. Justifikatzeko modua eta epeak.

Diru-laguntzaren justifikaziorako oinarri orokorretako 15. artikuluan jasotakoa betetzeaz gain, erakunde onuradunek ondorengo agiri hauek aurkeztu beharko dizkiote udalari:

- a) Garapen-bidean dauden herrialdeetan egin beharreko *lankidetz*a-ekintzetarako, honako hauek aurkeztu beharko dira derrigorrez:

- 1.- Programa burutzeaz arduratuko den pertsonari egindako diru-transferentziaren ziurtagiria.
- 2.- Burututako programa edo jardueraren memoria zehatza, eta bertan genero-inpaktua azaltzea.
- 3.- Gastu eta sarreraren balantzea.
- 4.- Diruz lagundutako gastuaren ziurtagirien orijinalak edo fotokopia konpultsatuak, edo gastu horri buruzko zinpeko deklarazioa.

* 1. puntuan aipatutakoa diru-laguntza jasotzen denetik gehienez ere 2 hilabeteko epean justifikatuko da.

* Beste puntu guztiak, berriz, hurrengo urteko abenduaren 31 baino lehen.

- b) Garapen-bidean dauden herrialdeetako errealitatearekiko hemengo bizilagunen interesa piztea helburu duten *sentsibilizazio*-ekintzetarako, hurrengo urteko abenduaren 31 baino lehen honako agiriak aurkeztuko dira :

- 1.- Egindako programa edo ekintzaren memoria zehatza, genero-inpaktua ere azalduz.
- 2.- Diruz lagundutako gastuaren ziurtagirien orijinalak edo fotokopia konpultsatuak.

8. Klausula gehigarria.

Oinarri espezifiko hauetan jasotzen ez diren gai guztietan, deialdiaren oinarri orokorretan ezarritakoa izango da aplikagarri.

**GARAPENERAKO LANKIDETZA-PROGRAMAK LANTZEN DITUZTEN GOBERNUZ
KANPOKO ERAKUNDEENTZAKO (GKE) DIRU-LAGUNTZEN INPRIMAKI GEHIGARRIAK**

PROIEKTUEN MEMORIAK

ESKAERA EGITEN DUEN GOBERNUZ KANPOKO ERAKUNDEAREN (GKEaren) ETA BESTE ALDEKO ERAKUNDEAREN DATUAK:			
ESKAERA EGITEN DUEN GKE:			
<u>Datu orokorrak:</u>			
1- Noiz eratu zen (data).			
2- Dagoeneko burututako hiru garapen-ekintza.			
<u>GKEk Bergaran edo Debagoiengan burutzen duen jarduera:</u>			
3- Bergaran edo Debagoiengan buruturiko ekintzak.			
4- Bergaran duen bazkide kopurua	Guztira	Emakumeak	Gizonak
5- Debagoiengan duen bazkide kopurua.	Guztira	Emakumeak	Gizonak
6- Proiektura bideratuko diren Bergarako - Debagoieneko boluntario edo/eta kooperanteen kopurua.	Guztira	Emakumeak	Gizonak
BESTE ALDEKO ERAKUNDEA:			
7- Izena.			
8- Noiz eratu den eta buruturiko jarduerak.			
9- Helbidea.			

10- Proiektuaren arduraduna.
11- Proiektuaren arduradunaren kargua eta esperientzia.
<u>Eskaera egiten duen GKEaren eta beste aldeko erakundearen arteko lotura:</u>
12- Harremana hasi zeneko urtea.
13- Elkarlanean buruturiko proiektuak (zerrendatu gehienez hiru).
<u>Beste aldeko erakundeak azken onuradunekin duen harremana:</u>
14- Harremana hasi zeneko urtea.
15- Elkarlanean buruturiko proiektuak (zerrendatu gehienez hiru).

Eskaera hau sinatzen duen _____jaun/andreak (NAN: ____) zinpean adierazten du aurkeztutako datuak benetakoak direla, eta hitz ematen du oinarri hauetan ezarritakoa bete eta aurkeztutako proiektuak aurrera eramango dituela.

Halaber, jakinean dago inprimaki honetako datu pertsonalak Bergarako Udalak behar bezala baimendutako fitxeroetan sartuko dituela. Datu horiek bakarrik udal kudeaketarako erabiliko dira, baina beste administrazio publikoei edo hirugarrenei laga edo jakinarazi ahal izango zaizkie abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan, Datu Pertsonalen Babesari buruzkoan, aurreikusitako kasuetan. Halaber, datuak eskuratzeko, ezeztatze, zuzentzeko eta aurka egiteko eskubidea erabili ahal izango dudala ondorengo helbidera zuzenduta: Bergarako Udala.- San Martin Agirre plaza, 1 - 20570 Bergara.

Bergara, 2016ko _____aren_____

SINADURA

PROIEKTUAREN LABURPENA:	
Izena	
Herrialdea	
Kokapen zehatza	
Laburpena: helburuak, proiektuaren genero-ikuspegia zehaztuta, aurrekontua xehea, eta ekintzak garatzen eta antolatzen erabiliko diren bitarteko eta baliabide ekonomikoak eta pertsonalak.	
Nondik sortu den proiektuaren beharra.	
Denbora	
Proiektua gauzatzeko epea	
Noiz hasiko den (baldintza bereziren bat kontuan hartzen den zehaztu)	
Noiz bukatuko den	
Proiektuaren kostu osoa: derrigorrez eurotan.	
Bergarako Udalari eskatzen zaion dirulaguntza zehaztu (eurotan)	
Proiektu berarentzat eskatutako beste dirulaguntza batzuk zehaztu	
Proiektu berarentzat lortutako beste dirulaguntza batzuk zehaztu	
Beste aldeko erakundearen ekarpena zehaztu	
Eskaera egiten duen GKEaren ekarpena zehaztu	

(*). Ezinbestekoa izango da ezarritako atal guztiak betetzea, bai GKEari dagozkionak, bai eskatutako diru-laguntzarekin egingo den proiektuari dagozkionak. Atal guztiak ez betetzeak eskaera baztertzea ekar lezake.

1.2. GIZARTE-ZERBITZUEN ARLOAN DIHARDUTEN ELKARTEEI DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO ARAU ESPEZIFIKOAK

1. Xedea eta onuradunak.

Oinarri hauen xedea da Bergarako udalerrian gizarte zerbitzuen arloan jarduerak egiten dituzten irabazi asmorik gabeko elkarteei 2016. urterako diru-laguntzak emateko baldintzak arautzea.

Honen guztiaren helburua da elkarteak sustatzea, herritarren arteko elkartasuna indartzea eta haiek antolatutako ekintzetan parte-hartzea bultzatzea

Diru-laguntza hauek jaso ahal izango dituzte legez erataka dauden eta irabazi asmorik gabekoak diren gizarte zerbitzuen arloan diharduten elkarteek. Beren ekintzek deialdi honen xedearekin bat egiten dutenak, eta nagusiki, honako taldeei bideratutakoak direnak: bazterketa-arazoak dituztenei, desgaitasunen bat dutenei, hirugarren adinekoei, eta zerbitzu sozialen beharra duten beste edozein taldeei. Aldi berean, Euskal Autonomi Erkidegoan edo Nafarroan errolatuak daudenak, eta egoitza soziala, ordezkaritza bat edo administrazio-egitura iraunkor bat Bergaran edo Debagoiengan daukatenak.

Deialdi honetatik kanpo geratuko dira:

- a) Beren izaera eta helburuak Gizarte Zerbitzuen Sailaren ardurapekoak diren eremuekin lotura zuzenik ez dutenak.
- b) Bere izaera eta helburuagatik udalaren beste diru-laguntza programa batean sar daitezkeen proiektuak edo ekintzak.

2. Eskakerak izapidetzeko administrazio-unitate eskuduna.

Eskabideak Gizarte Zerbitzuetako administrazio-unitateak izapidetuko ditu.

3. Aurkeztu behar den dokumentazioa.

Elkarte parte-hartzaile bakoitzak proiektu bakar bat aurkeztu dezake. Eskabideak deialdi orokorrean ezarritako inprimaki-ereduan aurkeztuko dira. Eredua ez jarraitzeak eskaera baztertzea ekarri dezake.

4. Eskakerak baloratzeko irizpideak.

Udalak elkarte bakoitzari emango dion diru-laguntza zehazteko, honako hauek hartuko dira kontuan:

- a) Udalak aurrekontuetan zehaztutako kopurua.
- b) Elkarte eskatzaileen kopurua.
- c) Elkartearen ibilbidea eta egokitasuna.
- d) Bergarako erabiltzaileentzat elkarteak eskaintzen duen zerbitzuaren kalitatea eta garrantzia.
- e) 2016. urtean burutu nahi den ekintza zehatza edota jarduera-proiektua.
- f) Ekintza zehatzari edota jarduera-proiektuari dagokion aurrekontua.

g) Emakumeen presentzia eta parte-hartzea elkartearen eremu guztietan ahalbidetzea (zuzendaritzan, bazkideen artean, erabiltzaileen artean, etab.)

Horretarako honako puntuazio-baremoa erabiliko da:

- Eskainitako ekintza-motak: 3 puntu arte
- Ekintzen iraupena eta maiztasuna: 7 puntu arte
- Zerbitzuaren kalitatea eta garrantzia: 4 puntu arte
- Elkartek Bergaran duen erabiltzaile kopurua, eta Bergaran egiten eta egingo diren ekintzetan parte hartuko duen boluntario kopurua: 4 puntu arte
- Garatzen den egitarauan emakume eta gizonen berdintasuna helburu izatea eta berdintasuna sustatzeko neurriak aurreikustea (emakumeen parte-hartzea sustatzeko, sexuaren arabera estereotipoak gainditzeko, bateragarritasuna eta erantzunkidetasuna errazteko, etab.): 1 puntu arte

Puntuaren balioa honela kalkulatu da:

Udalak aurrekontuetan onartu duen diru-kopurua hartu eta zatitu diru-laguntza eskatzen duten elkarte guztien artean lortutako guztizko puntuazioarekin (goiko baremoaren gehienezko puntuazio totalarekin).

Bestalde, diru-laguntza ezingo da izan diruz lagunduko den ekintzarako zehaztutako aurrekontuaren % 50etik gorakoa.

Gainera, diruz lagunduko den jarduera-proiektua garatzeko, udalak oinarri hauen arabera egokitutako kopurua bakarrik ordainduko du.

Aurreikusitako aurrekontutik dirua soberan geratuko balitz, talde guztien artean banatuko litzateke, puntuaketaren arabera.

5. Aurrekontua.

Programa honen xede diren diru-laguntzetara bideratutako diru-kopurua 19.690 eurokoa da eta finantzatuko da Gizarte Zerbitzuak GKE eta Elkarteei diru-laguntzak emateko duen partidatik (1.0500.481.230.20.01).

6. Justifikazio-arauak.

Oro har jasotako diru-laguntzaren justifikazioa egingo da, oinarri-arau orokorrek xedatutakoa betez.

7. Onuradunen obligazioak

Oinarri orokorretan jasotzen denaz gain, udalarekin hitzarmena sinatu beharko da.

Emandako diru-laguntzaren jakinarazpena jaso eta hilabeteko epean sinatu beharko da hitzarmena.

Hilabeteko epe hori igarota, diru-laguntzaren onuradunari lepora dakioken arrazoiren batengatik hitzarmena sinatuko ez balitz, erakundeak diru-laguntzari uko egin diola ulertuko da.

Hitzarmen horretan alde bien eskubideak eta betebeharrak egongo dira jasota, bai eta diru-laguntza ordaintzeko era, jarduera nola burutuko den, egindako jardueri buruzko txostenak

eta memoriak aurkeztean bete beharrekoak, eta gutxi gorabehera jarduerak noiz hasi eta noiz bukatuko diren.

8. Klausula gehigarria.

Oinarri espezifikoko hauetan jasotzen ez diren gai guztietan, deialdiaren oinarri orokorretan ezarritakoa izango da aplikagarri.

2. ERANSKINA. KIROL ZERBITZUA

2.1. BERGARAKO KIROL ENTITATEEN OHIKO ETA EZOHIKO JARDUERAK FINANTZATZEKO LAGUNTZA EDO DIRU-LAGUNTZA PROGRAMA

Arau orokorretan araututakoaz gain, kirol entitateek eranskin honetan jasotakoa ere hartu beharko dute kontuan.

1. KAPITULUA

1. Xedea eta onuradunak

Oinarri hauen xedea da Bergaran —edo beste herriren batean (betiere Bergaran kirol modalitate horretarako kirol entitateak ez badago)— egoitza duten eta bergararrekin diharduten irabazi asmorik gabeko kirol entitateei emateko udal diru-laguntzak arautzea.

Diru-laguntzen helburua da Eskola Kirola programan, Guztientzako Kirola programan eta Kirol Federatuaren alorrean kirol jarduerak antolatzen dituzten kirol entitateak diruz laguntzea.

Denboraldiak bi urte hartzen dituen kasuetan, diruz lagunduko direnak urte horretako denboraldi zati handiena eta aurreko urteko txikiena izango dira. Horrela ez den kasuetan, urte naturala hartuko da denboraldi bezala.

2. Eskaerak izapidetzeko administrazio-entitate eskuduna.

Kiroletako unitate eskuduna.

3. Eskaerak egiteko agiriak.

Diru-laguntzak eskatzeko dokumentazio orokorrean aipatutako agiriaz gain, kirol entitateek honako agiri hauek ere bete eta aurkeztu beharko dituzte, eranskin honi eransten zaizkion erduei jarraituz.

- a. Denboraldiko kirolean, 2015-2016 denboraldiko jardueraren **kirol-memoria**. Urteko denboraldia duten kirolean, berriz, 2016ko kirol memoria. Memoria hauek, gutxienez, atal hauexek bilduko dituzte:
 - a. **Urte edo denboraldi horretan federazioak egindako kirolari-zerrenda ofiziala**. Horretarako entitateak atxikita dagoen federazioari entitateko kirolarien zerrenda zenbakitu ofiziala eskatu eta udalari aurkeztu beharko dio. Zerrenda horretan, gutxienez, kirolari kopurua, kategoria, adina, sexua eta kirolaria bizi den udalerrria agertu beharko dira.
 - b. **Teknikarien zerrenda zenbakitua**, federazioan indarrean dagoen lizentzia dutenena, haien titulazioarekin. Horretarako, teknikarien federazioko lizentziaren eta tituluaren fotokopia ere gehitu beharko dira. Horrekin batera, entrenatzaileen euskara-gaitasuna ziurtatuko duten egiaztagiria aurkeztuko dira.
 - c. Entitateko **bazkide kopurua** eta entitateari hileroko edo urteroko ordaintzen dioten **kuotaren zenbatekoa**.

- d. Aukeran, udalari laguntzeko asmotan, kirol entitateak lagungarritzat jo ditzakeen beste edozein agiri.

4. Kirol entitateentzako diru-laguntzetarako irizpideak.

4.1 EGITURA

Honako hauek dira eskaerak baloratzeko irizpideak eta puntuazioak:

1. Federazioetako kirol-lizentziak. Ondoren jasotzen den bezala baloratuko dira:
 - a. 18 urte arteko kirol lizentzia federatu bakoitzeko puntu 1.
 - b. 18 urtetik gorako (berau barne) eta aisialdiko kirol lizentzia ez den federatu bakoitzeko puntu 1.
 - c. 18 urtetik gorako (berau barne) eta aisialdiko kirol lizentzia federatu bakoitzeko, 0,25 puntu. (Araudi honen aplikaziorako, aisialdiko kirolak izango dira ehiza-arrantza, zikloturismoa, mendizaletasuna, urpekaritza, eta Kirol Batzordeak hala adierazi ditzakeen kirol modalitateak).
 - d. Goiko puntuazio-sistemei honako zuzenketa-koefizienteak aplikatuko zaizkie:
 - Emakumezko lizentzia federatu bakoitzari balio bikoitza emango zaio. Hau ez da aisialdiko kirol lizentzietarako baliagarri izango.
 - Eusko Jaurlaritzako Euskal Kirolaren planean dauden herri kirol, euskal pilota edota arrauneko lizentzia federatu bakoitzari balio bikoitza emango zaio.
 - Euskadiko Kirol Egokituko Federazioak kirol egokituko jarduera bezala kontsideratu eta onartua duen kirol jarduera bakoitzeko lizentzia federatu bakoitzari balio bikoitza emango zaio.
 - e. Kirol entitatearen Eskola Kirol lizentziak lizentzia federatuak balira bezala puntuatuko dira.

Guztira, gehienez, 450 puntu lortu ahal izango dira.
2. Eusko Jaurlaritzako organo eskudunak, Kirol lizentziak Kontseilu Gorenak (*Comité Superior de Deportes*) edo dagokion federazioak emandako eta indarrean dagoen lizentzia duen entrenatzaile-maila bakoitzeko, guztira, gehienez, 40 puntu eskuratu ahal da:
 - a. Oinarrizko mailako kirol teknikariaren titulua, edo bateragarri den beste titulu federatu ez ofiziala: 2 puntu titulu bakoitzeko.
 - b. Erdi mailako kirol teknikariaren titulua, edo bateragarri den beste titulu federatu ez ofiziala: 5 puntu titulu bakoitzeko.
 - c. Goi mailako kirol teknikariaren titulua, edo bateragarri den beste titulu federatu ez ofiziala edota TAFYD: 7 puntu titulu bakoitzeko.
 - d. Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietan lizentziatu bakoitzeko, 10 puntu titulu bakoitzeko.
3. Bazkide-kopurua, eta bazkide bakoitzeko diru-ekarpena.
 - a. Bazkide kopuruaren arabera puntuazioa:
 - 50 bazkide baino gutxiago, 1 puntu.

- 50 eta 99 bazkide artean, 3 puntu.
- 100 eta 249 artean, 6 puntu.
- 250 baino gehiago, 10 puntu.

b. Bazkide bakoitzeko kuota:

- Hilean 6 € baino gutxiago, 5 puntu.
- Hilean 7 € eta 12 € artean, 10 puntu.
- Hilean 12 € baino gehiago, 20 puntu.

Guztira gehienez 30 puntu lortu ahal izango dira.

4. Urteko ekonomia-memorian agertzen den diru-balantzeko diru-sarrerak enpresa edo entitate pribatuetako jatorria duten (babesa edo laguntzak) kontuan hartuko da. Horretarako, sarrera horiek diru-sarrera osoarekiko diren portzentajearen arabera puntuazio bat aplikatuko da. Zehazki, honela baloratuko dira:
- a. Diru-sarreraren % 10 arte, 0- 5 puntu bitartean.
 - b. Diru-sarreraren % 10etik 20ra arte, 5-10 puntu bitartean..
 - c. Diru-sarreraren % 20tik 40ra arte, 10-15 puntu bitartean.
 - d. Diru-sarreraren % 40 edo hortik gora, 15-50 puntu bitartean.

Guztira gehienez 50 puntu lortu ahal izango dira.

5. Autonomia-mailan edo hortik goragoko liga erregularretan lehiatzen duten talde bakoitzarengatik 40 puntu jasoko ditu entitateak.

Irizpide hauen arabera kirol entitateentzako diru-laguntzen % 45a banatuko da. Puntuaren balioa kalkulatzeko, lehenengo kirol entitateek lortutako puntu guztien batuketa egingo da, eta gero, udal aurrekontuetan onartuta dagoen diru-kopuruaren % 45a batuketa horren emaitzaz zatituko da.

Ondoren, eta entitate bakoitzari dagokiona zehazteko, puntuaren balioa entitateak lortutako puntuekin biderkatuko da.

4. 2. KIROL ENTITATEEK ANTOLATZEN DITUZTEN IZAERA BEREZIKO EDOTA NOIZEAN BEHINGO KIROL-JARDUERETARAKO DIRU-LAGUNTZA.

Kiroletako eranskinetan, entitateek antolatzen dituzten ekintza bakoitzeko fitxa bat bete beharko dute. Bergarako Udal Kirol Batzordeak urte horretako eskaera guztiak aztertuko ditu. Beharrezkoa izan daitezkeen kasuetan, eta izaera bereziko jardueren konplexutasuna dela-eta, hainbat kirol entitateri argibide eta agiri gehiago eskatzeko aukera izango du. Azterketa ostean, jarduera bakoitzerako urteko diru-partidaren araberrako banaketa egingo du.

Puntuazioa honako irizpideen arabera banatuko da; partaide kopurua, herrian duen oihartzuna, komunikabideetan duen oihartzuna, ekitaldiaren kirol maila, zenbatgarren edizioa den eta aurrekontua.

Atal honetan diru-laguntzen % 30a banatuko da.

4.3 KIROL ENTITATEEK UDALAREKIN BATERA ANTOLATZEN DITUZTEN KIROL-JARDUERETARAKO DIRU-LAGUNTZA

Kirol entitateak zerrendatu beharko ditu zein ekintzatan eta zenbat egunetan hartu duen parte Eskola Kirolean, Uda Kanpainan, Kirola Kalera egunetan, bizikleta-jardunaldietan...

Puntuazioa honako irizpideen arabera banatuko da: % 50 Eskola Kirola programan parte hartzen dutenen artean, bereiziz partaidetza puntualak, astebete edo bi asteoak, edota iraunkorrak. Beste % 50a banatuko da Kirola Kalera egunetan, bizikleta-jardunaldietan edo beste elkarlaneko proiektu berezietan parte hartzen dutenen artean.

Atal honetan diru-laguntzen % 15a banatuko da

4.4 EUSKARAREN ERABILERA. Irizpide hauen arabera, kirol entitateentzako diru-laguntzen % 10a banatuko da.

Horretarako, kontuan izango dira ohiko entrenamenduak eta partiduak (baita kirol-eskoletakoak ere), eta entrenatzaile eta epaileentzako prestakuntza-ikastaroak.

Hartuko den adin-tartea: 18 urtetik azpikoak.

Puntuazio-sistema: Finkatutako diru-kopurua honelako puntuazio-sistemaren arabera banatuko da:

- Entrenamenduak eta partiduak:
 - Kirolari kopurua, entrenatzailearen hizkuntza-erabileraren arabera: euskaraz, 1 puntu kirolari bakoitzeko; gehiena euskaraz, 0,75 puntu kirolari bakoitzeko; gehiena gaztelaniaz, 0,25 puntu kirolari bakoitzeko; eta gaztelaniaz, 0 puntu. Entrenatzaile bat baino gehiago badago taldeko, entrenatzaileen batez bestekoa izango da kontuan, puntuak emateko.
 - Entrenatzaile kopurua hizkuntza-erabileraren arabera: euskaraz dabiltzanak, 4 puntu; gehiena euskaraz dabiltzanak, 2 puntu.
- Entrenatzaile eta epaileentzako prestakuntza-ikastaroak; Bergaran jaiok edo Bergaran entrenatzen dutenek euskaraz jasotako prestakuntza-orduen arabera: 4-20 ordu euskaraz, 1 puntu entrenatzaile bakoitzeko; 20-50 ordu euskaraz, 2 puntu entrenatzaile bakoitzeko; 50-100 ordu euskaraz, 3 puntu entrenatzaile bakoitzeko; eta 100 ordutik gora euskaraz, 4 puntu entrenatzaile bakoitzeko.
- Neurketa-sistema:
 - Denboraldi-hasieran klubeko arduradunekin edo entrenatzaileekin bilera bat egingo da eta taldeari eta entrenatzaileei buruzko informazioa jasoko da, entrenatzaileek beteko duten fitxa baten bidez. Prestakuntza-ikastaroei buruzko informazioa, berriz, denboraldi-amaieran jasoko da, horretarako beteko den fitxa baten bidez.
 - Ikasturtean bi neurketa egingo dira, eta dirua denboraldi-amaieran banatuko da.

Neurketa-modua orain arteko bera izango da: Euskara Zerbitzuak ebaluatuko du galdeketa eta behaketa bidez. Klub bakoitzak arduradun bat izendatuko du, eta kontraesanik izanez gero, adostu egingo dira.

Irizpide hauen arabera, kirol entitateentzako diru-laguntzen % 10a banatuko da

5. Aurrekontua.

Programa honen xede diren diru-laguntzetara bideratutako diru-kopurua 89.500 eurokoa da eta finantzatuko da kiroletako T.T kirol taldeak partidaren kontura (1 0320 482 341 00 01 2016).

6. Klausula gehigarria.

Oinarri espezifiko hauetan jasotzen ez diren gai guztietan, oinarri orokorretan ezarritakoa izango da aplikagarria.

KIROLETAKO INPRIMAKI BEREZI GEHIGARRIAK

TALDE eta KIROLARI kopurua: Dagokion federazioak ziurtaturiko kirolarien zerrenda erantsi.				
ESKOLA KIROLA (Eskola Kiroleko lizentziak)				
	NESKAK		MUTILAK	
	Talde kopurua	Kirolari kopurua	Talde kopurua	Kirolari kopurua
BENJAMINAK				
ALEBINAK				
INFANTILAK				
LIZENTZIA FEDERATUAK				
	NESKAK		MUTILAK	
	Talde kopurua	Kirolari kopurua	Talde kopurua	Kirolari kopurua
INFANTILAK				
KADETEAK				
JUBENILAK				
SENIORRAK				

KIROL ENTITATEKO TEKNIKARIAK

- Indarrean dauden lizentzien zerrenda, federazioak ziurtatua.
- Dagozkien titulazioak erantsi.

Izen-abizenak	Maila	Euskara-gaitasuna

MAILAK (letrak ipini)

- Oinarrizko entrenatzaile (begiralea) bakoitzeko, 2 puntu.
- Maila erdiko kirol entrenatzailea (lurreko/erregionala), 5 puntu.
- Goi mailako kirol entrenatzailea (nazionala) edo TAFYD, 7 puntu.
- Jarduera Fisiko eta Kiroletako Zientzietan lizentziatu bakoitzeko, 10 puntu.

KIROL ENTITATEAREN BAZKIDEAK ETA KUOTAK

Kirol entitateko bazkide kopurua:

Bazkide-kuota.

Adierazi €/urte edo €/hileko kuotak diren:

Kirol entitateek izaera berezi edo/eta noizean behingo kirol jarduerak antolatzeko.

Jarduera bakoitzeko holako bat aurkeztu beharko da.

1. JARDUERARI BURUZ.

KIROL ENTITATEA	
JARDUERA IZENA	
EGUNA/ ORDUA/...../.....
LEKUA	
AURREKONTUA	
DIRU-SARRERAK	
DEFIZITA	

2. PARTE-HARTZAILEEI BURUZ.

		KOPURUA
ESKOLA KIROLA	BENJAMINAK ALEBINAK INFANTILAK INFANTILAK KADETEAK JUBENILAK SENIORRAK	
FEDERATUAK PROFESIONALAK PARTE-HARTZE IREKIA	GUZTIRA	

3. ERANSKINA. KULTURA SAILA

3.1. KULTURA ELKARTEEI URTEKO EGITARAUAK GARATZEKO DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO OINARRI ESPEZIFIKOAK

1. Xedea eta onuradunak

Deialdi honen xedea da 2016. urtean irabazi asmorik gabeko Bergarako kultur elkarteei urteko programak finantzatzeko diru-laguntzak emateko baldintzak arautzea.

Diru-laguntza hauek jaso ahal izango dituzte deialdi honetan zehaztutako alorrean kultur ekintzak burutzen dituzten irabazi asmorik gabeko elkarteek, betiere egoitza eta jarduteko esparrua Bergaran izanik.

Elkarteek Autonomia Erkidegoko elkarteen erregistroan edo bestelako erregistro publikoetan erregistratuta egon beharko dute, eta identifikazio fiskaleko kodea eduki beharko dute.

Salbuespen gisa, eta diru-laguntza eskaera 3.000 eurotik beherakoa izanez gero, onuradunak honako hauek ere izan daitezke: irabazi asmorik ez duten pertsona fisikoen edo juridikoen taldeak (publikoak nahiz probatuak), nahiz eta nortasun juridiko bereizturik ez izan.

Dena den, deialdi honetatik kanpo geratuko dira:

- a) Beren izaera eta helburuak Kultura Sailaren ardurapekoak diren eremuekin lotura zuzenik ez dutenak.
- b) Beren izaera eta helburuagatik udalaren beste diru-laguntza programa batean sar daitezkeen proiektuak edo ekintzak.
- c) Auzoko kultur elkarteek auzoari zuzendutako kultur ekintzen antolaketa. Hau da, auzoek edo auzoetako kultur elkarteek antolatutako ekintzak ez dira deialdi honetan sartuko.

2. Eskaerak izapidetzeko administrazio-unitate eskuduna.

Eskaerak Kulturako administrazio-unitateak izapidetuko ditu.

3. Aurkeztu behar den dokumentazioa.

Elkarte parte-hartzaile bakoitzak proiektu bakar bat aurkeztu dezake. Eskabideak deialdi orokorrean ezarritako inprimaki-ereduan aurkeztuko dira.

4. Eskaerak baloratzeko irizpideak.

Diru-laguntza eskaerak ondorengo irizpide eta baremoak kontuan hartuta baloratuko dira:

- a) Proposatutako egitarauaren ezaugarriak: gehienez 60 puntu, alderdi hauek kontuan hartuta:
 - a.1. Garatzen den egitarauak kultura arloari egiten dion ekarpena, Bergaran eta atzerrian.

a.2. Garatuko den egitaraua herritar guztiei zuzentzea, giza proiektzioa izatea, edo beste entitate, herritar eta kultur eragile batzuen inplikazio-maila.

a.3. Elkarre edo taldeek proposatzen dituzten proiektu edo jarduerak herriko beste talde edo elkarre batzuekin elkarlanean burutuz gero, ekintza bateratu horiek balorazio gehigarri eta positiboa izango dute, sozializazio ikuspegitik.

a.4. Proposatutako egitarauaren ibilbidea eta errotzea.

a.5. Garatzen den egitarauak emakume eta gizonen berdintasuna sustatzeko neurriak aurreikustea (emakumeen parte-hartzea sustatzeko, sexuaren araberrako estereotipoak gainditzeko, bateragarritasuna eta erantzunkidetasuna errazteko, etab.).

b) Entitate eskatzailearen ezaugarriak: gehienez 20 puntu, alderdi hauek kontuan hartuta:

b.1. Entitate eskatzailearen jarraitasuna eta egonkortasuna.

b.2. Udalaren ekimenetan parte-hartzaile izatea.

b.3. Entitate eskatzailearen eta bere giza taldeen dedikazioa.

b.4. Emakumeen presentzia eta parte-hartzea elkarrearen eremu guztietan (zuzendaritzan, bazkideen artean, erabiltzaileen artean, etab.)

c) Entitatearen finantza-baliabideak; bere baliabideen, beste diru-laguntzen eta aurkeztutako gastuen aurrekontuaren arteko proportzionaltasuna: gehienez 20 puntu.

c.1. Elkarre edo taldeei dagokienez, autofinantzaketarako ekintzak eta ahaleginak egiten dituztenak positiboki baloratuko dira, bereziki ekintza horiek herrirako ekarpen edo ekimen berri bat eragiten dutenean. Modu positiboan baloratuko da, elkarrearen inplikazioa baitakar.

Inoiz ez da aurkeztutako gastuaren % 80 baino gehiago emango.

5. Aurrekontua.

Programa honen xede diren diru-laguntzetara bideratutako diru-kopurua 39.210 eurokoa da eta finantzatuko da Kulturako diru-laguntzak kontu-sailaren kontura (0340.482.451.08. 2015).

Aipatutako kopurua gehitu ahal izango da, Udal Aurrekontuaren exekuzio-oinarriek aurreikusten dutenaren arabera.

6. Klausula gehigarria.

Oinarri espezifiko hauetan jasotzen ez diren gai guztietan, oinarri orokorretan ezarritakoa izango da aplikagarria.

KULTURAKO INPRIMAKI BEREZI GEHIGARRIAK

ELKARTEAREN IZENA	
Nortzuek osatzen dute zuzendaritza-taldea	
Presidentea	
Idazkaria	
Diruzaina	
Bokalak	
Bergaran, zenbat kide zarete elkartearen?	
10 kide baino gutxiago	
10-25 bitartean	
26-50 bitartean	
51-100 bitartean	
100etik gora	
Udalak utzitako lokala duzue?	
Zuentzako bakarrik? Zein?.	
Konpartitua? Zeinekin?	
Maiztasuna	
Debagoieneko beste herrietan jarduten zarete?	
Zein herritan	

Kultur taldearen Kuota	
Kuotarik ez	
25 eurotik behera	
25-35 euro bitartean	
36-55 euro bitartean	
56-65 euro bitartean	
66 eurotik gora	

4. ERANSKINA. INGURUMEN SAILA

4.1. INGURUMENAREKIN LOTUTA, IRABAZI ASMORIK GABEKO ERAKUNDE ETA ELKARTEEK 2016AN EKINTZAK GAUZATZEKO DIRU-LAGUNTZAK

1. Xedea eta onuradunak

Oinarri-arau hauen xedea da Bergarako udalerriko eremuan ingurumen izaerako jarduerak egiteko diru-laguntzak emateko deialdia arautzea.

Diru-laguntza jaso ahal izango dute Bergarako udalerrian 2016ko urtean irabazi asmorik gabeko talde, elkarte eta erakundeek egindako ingurumen izaerako ekintzek, oinarri hauen 2. puntuaren zehaztutako esparruetan.

2. 2016. urtean diruz lagunduko diren esparruak

Begarako Tokiko Agenda 21ean jasotako honako lerro estrategikoetako proiektuak lagunduko dira diruz:

2.1. *Biodibertsitatea, ondare naturala eta paisaia babestu eta hobetu.* Lerro honetan diruz lagundu ahal izango dira Bergarako udalerrian biodibertsitatea eta ondare naturala hobeto ezagutzeko eta ezagutzera emateko jarduerak, eta baita zuzenean intereseko espezie zein habitaten kontserbazio-egoeran hobekuntza eragingo dutenak ere.

2.2. *Baliabide naturalen erabilpena eta hiri-hondakinen kudeaketa hobetzea.* Lerro honetan, hiri-hondakinen sortze-prebentzioaren arloko proiektuak lagundu ahal izango dira.

3. Onuradunak

Laguntza jaso ahal izango dute Bergaran egoitza eta jardun-eremua duten irabazi asmorik gabeko erakunde eta elkarteek, baldin eta horien helburuen eta jardueren artean badaude ingurumenaren kontserbazioa, hobekuntza eta zabaltze zein sentsibilizazioa.

4. Helburuak

Herritarren partaidetza eta herritarrek bultzatutako interes sozialeko jarduerak sustatzea da helburu nagusia, betiere Tokiko AG-21ean jasotako lerro estrategikoen garapenaren testuinguruan.

5. Eskaerak aurkezteko modua

Diru-laguntza eskaerak ondorengo agiriekin batera aurkeztuko dira, atal orokorrean zehaztutakoaz gain:

- Diruz laguntzea nahi den programaren edo ekintzaren memoria zehatza (epeak, metodologia, helburuak, baliabideak, arduradunak, aurreikusitako parte hartzea).

- Diruz laguntzea nahi den programaren edo ekintzaren esparruan eskatzaileak duen ezagutza eta esperientziari buruzko txostena.
- Diruz laguntzea nahi den programaren edo ekintzaren aurrekontu xehatua.
- Proiektuaren ezaugarriengatik beharrezkoa dela ikusten badu, jarduera garatzeko eskatzaileak beste erakundeetan eskuratu beharko duen baimen idatziaren kopia ere eskatu ahal izango dio Bergarako Udalak.

8. Izapidetzeaz arduratzen den administrazio-unitatea.

Laboratorium museoko administrazio-unitateak izapidetuko ditu eskabideak.

9. Eskabideak baloratzeko irizpideak

Oinarri-arau hauetan arautzen diren laguntzak kalkulatzeko, irizpide hauek aplikatuko dira, atal bakoitzeko hemen jasotzen den puntuazioarekin:

- Proiektuaren kalitatea: helburuak, metodologia, iraupena, baliabideak, berrikuntza maila, intereseko habitaten zein espezie mehatxatuen ezagutzan proiektuak egingo duen ekarpena, ondorioak inplementatzeko aukera, etab.; gehienez ere 40 puntu arte.
- Entitatearen ingurumen-ezagutza eta ingurumen-jarduerak garatzen duen esperientzia, baita proiektuari lotutako lan-taldearena ere; gehienez ere 20 puntu arte.
- Tokiko Agenda 21eko lerro estrategikoen garapenean egiten duen ekarpena; gehienez ere 20 puntu arte.
- Proiektuak eskaintzen duen parte-hartze maila; gehienez ere 20 puntu arte.

Edozelan ere, programa honetan aurreikusten diren laguntzak lortzeko, gutxienez 50 puntu lortu behar dute aurkezten diren proiektuek.

10. Aurrekontua

Programa honen bidez deitutako diru-laguntzen zenbatekoa 3.000 eurokoa da, eta finantzatuko da 1.0800.482.172.10.01– “T.T. Ingurugiroa” kontu-sailaren kontura.

11. Klausula gehigarria

Oinarri espezifiko hauetan jasotzen ez diren gai guztietarako, oinarri orokorretan ezarritakoa izango da aplikagarria.

Esp. zk.a:

5. ERANSKINA

ESKATZAILEAREN IDENTIFIKAZIOA / IDENTIFICACIÓN DE LA PERSONA SOLICITANTE

Izena / Nombre	Lehen abizena / Apellido 1	Bigarren abizena / Apellido 2	NAN zk.a / Nº DNI
Jakinarazteko helbidea / Domicilio a efectos de notificación		Herria / Población	K.P. /C.P.
Probintzia	Herraldea / País	Telefonoa(k)	
e-posta / e-mail			Fax-a

Honakoaren izenean / En representación de:

ORDEZKATUAREN DATUAK / DATOS DE LA ENTIDAD REPRESENTADA

Entitatearen izena / Nombre de la entidad	IFZ / CIF

ZEIN DEPARTAMENTUTARA BIDERATZEN DA ESKAERA / DEPARTAMENTO AL QUE SE DIRIGE LA SOLICITUD

Gizarte zerbitzuak / Servicios sociales	<input type="checkbox"/> Kirolak Deporte	<input type="checkbox"/> Kultura Cultura	<input type="checkbox"/> Ingurumena Medio Ambiente
<input type="checkbox"/> GKEentzako diru-laguntza / Subvención para ONG			
<input type="checkbox"/> Gizarte-ekintzatarako diru-laguntza / Subvención para acción social			

TALDEKO KONTU KORRONTEAREN DATUAK/ DATOS DE LA CUENTA CORRIENTE DE LA AGRUPACIÓN

Entitatea / Entidad	Titularra / Titular
IBAN	Zkia. / Nº

Sinatzailleak **adierazten** du Bergarako Udalak onartu eta argitaratu dituen diru-laguntza oinarriak ezagutu eta onartzen dituela.

Azaroak 17ko 38/2003 Legeak 13. artikuluko 2. eta 3. idazatietan adierazitako diru-laguntzak jasotzeko debeku-egoeretako batean ere ez gaudela.

Halaber, ondorengo honen **jakitun geratzen da**:

- Inprimaki honetako datu pertsonalak Bergarako Udalaren jabetzakoak diren eta behar bezala baimenduta dauden fitxategietan sartuko direla. Datu horiek udal kudeaketarako bakarrik erabiliko dira, baina beste administrazio publiko bati edo besteren bati laga edo jakinarazi ahal izango zaizkie, abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan, Datu Pertsonalen Babesari buruzkoan, aurreikusitako kasuetan

- Datuak eskuratzeko, ezeztatzeko, zuzentzeko eta aurka egiteko eskubidea erabili ahal izango duela ondorengo helbidera zuzenduta: Bergarako Udala. San Martin Agirre plaza, 1. - 20570 Bergara..

La persona que suscribe declara que conoce y acepta las bases de subvención aprobadas y publicadas por el Ayuntamiento de Bergara.

Que no estamos incursas/os en ninguna de las prohibiciones para obtención de subvenciones establecidas en los apartados 2 y 3 del artículo 13 de la Ley 38/2003 de 17 de noviembre.

Además, **queda enterada** de lo siguiente:

- Que los datos personales contenidos en este impreso serán incorporados a diferentes ficheros debidamente autorizados titularidad del Ayuntamiento de Bergara. El uso de dichos datos se restringirá exclusivamente a la gestión municipal, pudiendo procederse a su cesión o comunicación a otras Administraciones Públicas o terceros en los supuestos previstos en la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre de Protección de Datos de Carácter personal.

- Que respecto a dichos datos podrá ejercer los derechos de acceso, cancelación, rectificación y oposición dirigiéndose a: Bergarako Udala - Ayuntamiento de Bergara. San Martín Agirre plaza, 1 - 20570 Bergara.

Lekua, data eta sinadura / Lugar, fecha y firma

Esp. zk.a:

AURKEZTU BEHARREKO AGIRIEN ZERRENDA

- Eskaera-orria, behar bezala beteta eta sinatuta
- Jarduera-programa
- Aurrekontua
- Ogasunekiko betebeharretan egunean egotearen ziurtagiria edo zinpeko aitortpena
- Gizarte Segurantzarekin egunean egotearen ziurtagiri ofiziala edo zinpeko aitortpena
- Departamentu bakoitzak bere arautegi espezifikoan jasotako agiriak

Lehendabiziko aldiz diru-laguntza eskatzen duten entitateek, gainera:

- Eusko Jaurlaritzako elkarte eta entitateen erregistroko kopia zigilatua, elkartearen edo entitatearen eratze-aktaren kopia, estatutuak eta egungo zuzendaritza-batzordearen osaketa

LISTADO DE DOCUMENTOS QUE DEBEN PRESENTAR

- Impreso de solicitud, debidamente cumplimentado y firmado*
- Programa de actividades*
- Presupuesto*
- Certificado, o declaración jurada, de estar al corriente en sus obligaciones con Hacienda*
- Certificado, o declaración jurada, de estar al corriente en sus obligaciones con la Seguridad Social*
- Documentación requerida en las bases específicas por cada departamento.*

Las entidades que realicen la solicitud por primera vez, además:

- Copia sellada del registro de asociaciones y entidades del Gobierno Vasco, copia del acta de constitución, estatutos y composición actual de la junta directiva.*

Esp. zk.a:

ENTITATEAREN DATUAK / DATOS DE LA ENTIDAD

Nortzuek osatzen dute zuzendaritza-taldea	
Presidentea	
Idazkaria	
Diruzaina	
Bokalak	
Bergaran, zenbat kide zarete elkartean?	
10 kide baino gutxiago	
10-25 bitartean	
26-50 bitartean	
51-100 bitartean	
100etik gora	
Udalak utzitako lokala duzue?	
Zuentzako bakarrik? Zein?	
Konpartitua? Zeinekin?	
Soilik udal bilera gela erabiltzen dugu. Non?	
Debagoieneko beste herrietan jarduten zarete?	
Zein herritan	



DIRULAGUNTZA ESKAERA SOLICITUD DE SUBVENCIÓN

Esp. zk.a:

AURREKONTUA / PRESUPUESTO

AURREKONTUA / PRESUPUESTO			
	Gastua (€)		Sarrera (€)
GASTUAK GUZTIRA		SARRERAK GUZTIRA	
BALANTZEA			

Lekua, data eta sinadura / Lugar, fecha y firma

Bergara, 2016ko uztailaren 21a
IDAZKARIAK